

Noaia!!!



Mundu bat bildu zen
Zubietan



Soinurbil Musika Astea
Mozart-en opera batekin hasiko da



baratzerako landare ekologikoak



ERRAUSKETARIK EZ LURRA BASERRIA HEPPA BIZIRIK



alkartasuna@usurbil.com ☎ 943 361114

IREKI BIDEA EZKERRARI

Leizola, etxeko etiketa, etxeko etiketa
Leizola, etxeko etiketa, etxeko etiketa
Leizola, etxeko etiketa, etxeko etiketa



Albistea iruditan!

Gernikako Akordioaren aldeko atxikimendu gehiago

Akerra Gaztetxeko kideek ere, Gernikako Akordioarekin bat egin dute. Irudian dituzue Usurbilgo gazteak, Gernikako Akordioari atxikimendua azaltzen. Azken asteotan, asko izan dira akordioaren alde agertu diren herriko taldeak.

Euskal Herrian ireki den prozesua garatzen eta finkatzen laguntzeko, akordio honek izan dezakeen garrantziaz jabeturik, Nafartarrak Kultur Taldea, Aitzaga Kultur Elkarte, Buztinzulo Zeramika Taldea eta Hotzikara musika taldea ere akordioarekin bat etorri dira.



AKERRA GAZTETXEKOAK, FRONTOIAN EGINDAKO ARGAZKIAN.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltea	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 373 228	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 361 412	Oa botika	943 361 217	Telefonica	1004
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberi 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jenduarreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Alaitz Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Mainer Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkarte eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Euskal presoak



Euskal Herrira!





UNAI AGIRRE

2.000 harri kendu ditugu Zubietan

Lehenengo igandean, Hartu nahi dut arnas flashmob-
ba Zubietan ospatu zen, Erraustegiarentzat mora-
toria eskatzeko. Ikusi, sentitu, eta dantzatu nuen arte,
ezin nuen sinetsi zer izan zitekeen hori. Harkaitz han-
diena ere mugitu dezake horrelako jende-tsunami
batek. Egun batzuk lehenago erraustegiaren lehen
harria jarri arazi genien; izan ere gure dirua kontrola-
tzen dute baina herriarekin urduri jartzen dira. Eta
Imanol Azpirotzek zioen bezala, teknologia aurreratue-
naren aurrean gure teknologia jendea da. Horregatik,
igandean, guk 2.000 harri kendu genituen. Dantzan eta
jai-giroan, hilabete batzuk lehenago hasitako prestaketa
lanak loratu ziren azkenean. Gipuzkoa Zero Zaborrek,
dantza ikuskizunak, Porrotx eta Marimototx eta sabela
bete eta eztarria bustitzeko aukera ere eman zizkigun.
Erronka handia zen, baina emaitza handiagoa. Japoniar
batek ere, gogora ekarri zigun zer den teknologia arris-
kutsuekin jolastea. Jakinda ere erraustegia eta zentral
nuklearra konpara ezinakin diren bi teknologia ezberdin

dutela, badira zenbait antzekotasun ere. Izan ere, biak
sustatzen dute gizarte eredu kontsumista, eta biek lehe-
nosten dute etekin ekonomikoa osasunaren gainetik.

Gaur Zubietako erraustegiak segurtasun neurri guz-
tiak betetzen dituela diotenak, Garoñarekin ere
(Japoniako Fukushima zentralaren ia berdina) ahoa
segurtasun hitzarekin bete izan zaie. Duela 30 urte
esandakoak ere datozkit burura. Lemoizeko zentral
nuklearra egitearen alde, baten batek (orain ere erraus-
tegiaren alde daudenak hain zuzen ere) egiten ez bal-
din bazen, azak jango genituela esaten zuela.

Nik argi daukat: 2015eko neguan Zubietako azak
jan nahi ditut. Babarrunekin gainera. Baina dioxina-
rik, furano eta metal astunik gabe, atez atekoaren kon-
postak ongarritutako baratzetan jaiok baizik.

Eta argi daukat, Artzabaleta gainean eraikin tzar bat
egongo bada ere, bertan sekulan ez dute zaborra
errausterik izango. Zubietako ukuilurik handiena
izango da!

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Jatorri aniztasuna eta elkarbizitzari buruzko jardunaldiak

Martxoaren 31tik apirilaren 2ra,
"Usurbil Munduan, Mundua
Usurbilen: jatorri anitz, herri bat" lema-
pean, jardunaldiak antolatu dira gure
herrian. "Usurbilgo Aniztasuna eta
Elkarbizitza" txostenaren emaitzak
herritarrei ezagutzera emango zaizkie.
Hiru egunotan gainera, kontzertu,
mahai inguru eta eztabaida saioak tarte-
katuko dira. Hona hemen jardunaldio-
tako egitarau osoa:

Martxoak 31, osteguna

19:00 Jardunaldiaren irekiera.
Hizlaria: Xabier Mikel Errekondo

alkatea.

19:20 Mahai inguru: "Horrelakoak
gara", jatorri aniztasunaren eta elkarbi-
zitzaren inguruan Usurbilen eginiko
diagnosiaren aurkezpena. Partaideak:
Pedro Albite, EHUko irakaslea eta
Anitzak Ekimeneko kidea; José Piñas,
Usurbilgo Elkartasun Taldeko kidea; M^a
Jose Manzano, Extremaduratik etorrita-
ko bizilaguna.

20:00 Eztabaida.

Apirilak 1, ostirala

18:00 Mahai-inguru: "Hik ikasi,
guk hasi eta denok hazi". Hezkuntza-

sistema, kultura eta euskara. Partaideak:
Markos Nanclares, Aniztasunaren trata-
eran irakasle aditua; Marije Imaz,
Udarregi Ikastolako Zuzendaria; eta
Fatimetu Hamadi, Saharatik etorritako
ama.

19:00 Eztabaida.

Apirilak 2, larunbata

22:00 Kontzertua eta ikuskizuna
Askatasuna plazan: Bumpada Sound-ek
eta Euskal Herria anitza kolektiboak,
"Anitzak Hitzak" disko berria aurkeztu-
ko dute: hip-hop, break dance, beat box,
bertso hop, bideo,...

LATAILLADE    
GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK
Aritzititxo 8, behea - 943 363 348 - 609 888 021

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725


Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Ojundegia - Gozotegia
LABE-GOXO

Zubietan aurreikusiak dauden egitasmoen aurka, auzitegietara joko du Udalak

Donostiako Udalak Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin betikoz onartuta hartutako akordioak Administrazioarekiko Auzialdiko auzi bidean aurka egiteko asmoa du Usurbilgo Udalak. Erabakia udalbatzak gehiengo berretsi zuen, joan den martxoaren 15ean burutu zen ezohiko osoko bilkuran.

Gobernu taldeak babestu zuen proposamena, EAJ-PNV eta Aralarreko udal ordezkariak abstenitu ziren eta Alkarbide udal taldeak aurka bozkatu zuten. Usurbilgo interesak defendatzea du helburu Udalak aurkeztu asmo duen helegiteak, osoko bilkuran Xabier Mikel Errekondok argitzen zuenez, "Zubietako gainean planteatzen diren egitasmoak" direla eta. Aipatu bilkuran, Udala ordezkaturiko duten abokatu eta prokuradoreak izendatu ziren.



ERRAUSTEGIAREN "LEHEN HARRIA" IPINI ZUTEN AURREKO ASTEAN ZUBIETAN.

Eskumenak, auzitan

Hiri hondakinen kudeaketari lotuta bestalde, alor honetan ika-mika iturri izan diren udalek dituzten eskumenei lotuta ere auzi bidea jorratuko du Usurbilgo Udalak. Azken ezohiko osoko bilkuran gehiengo osoz berretsi zuen erabakia eta Udala ordezkaturiko duten abokatu eta prokuradoreak izendatu ziren.

Herri bideen inbentarioa

Josu Tellabidek eta Asier Agirresarobek egin eta Udalari aurkezturiko "Usurbilgo Herri-Bideen Azterketa" izeneko lana hasieraz onartu zuen gehiengo osoz udalbatzak, martxoaren 15eko osoko bilkuran. Alegazioak aurkezteko hilabetez jendaurrean egongo da ikusgai. Alkarbide udal taldeak aurka bozkatu zuten, gainerako udal ordezkariak alde.

Alegazio sorta aurkeztu du Udalak, Oriako itsasadarraren izendapena dela eta

Oriako itsasadarra Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu eta babeserako neurriak ezartzeko jendaurreko informazioan egon den artean, alegazioak aurkezteko aukera egon da. Udalak Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariaren txostenean jaso eta aurkeztu du aipatu alegazio sorta. Erabakiaren berri azken osoko bilku-

ran eman zuten. Hauek dira nagusiki Udaletik eginiko eskaerak: Oria itsasadarreko ondare kulturala aintzat hartzea; aipatu itsasadarreko erabilpen publikoaren antolaketa; itsasadarraren mugaketa eta Irisasi mendi publikoaren balioak aintzakotzat hartzea; nekazaritza eta natur balioen kudeaketa uztartzea; eta azkenik, Saria mendealdeko ibarra berreskuratzea.

Testu Bategina, behin behingoz onartua

Aurkeztu diren sei alegazioei Aterantzun ostean, behin behingoz onartu du Udalak Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bategina. Ezker abertzalearen eta Aralarren babesarekin onartu ere, EAJ-PNV eta Alkarbide udal taldeak aurka bozkatu baitzuten azken ezohiko osoko bilkuran. Sekaña eremuko B-4 partzelari dagokionez, Plan Berezia behin betiko onartu du udalbatzak.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

KALEZAR

INMA BALDA

Troia zubi lana egiten



Troia gaur egun ez da bakarrik aldapa baten izena. Kalezartarrok aski ezaguna dugun puntua da. Hala, bidegurutze hori erabiltzen da, auskalo noiztik!, Lasarte eta Usurbil lotzeko, zubietarren baimenarekin, jakina!

Goazen ba harira eta Troiako bidegurutzea da orain mintzagaia. Ospetsu egin zaigu puntu hori. Ikusi besterik ez, zenbat oinezko pasatzen den bertatik Zubietako buelta egiteko.

Zubietako buelta, bai, horrela deitzen diogu bai lasartearrak, baita usurbildarrok ere. Zenbat jende oinez Urbil aldera, zenbatek korrika saio Lasarte, Zubieta, Santuenea, Usurbil eta berriro Lasarte eginez, edo Usurbildik abiatuz alderantzizko buelta. Gazteak entrenamendu gisa, helduok eguneroko paseotxo, norbaitek erosketak egitera, familiak Zubietako parketara eguraldi zoragarriaz baliatuz. Aukerak mila eta denak onak, bidegurutzea bera izan ezik.

Ziur naiz ez naizela lehen, aurretik nik baino lehen askok eskatu dutela, baina azkena izatea gustatuko litzai-



dake: noiz oinezko zubia trenbidetik gora, N-634 gaindituz, pasako litzatekeena? Askotan horrelako eskaerak egiten direnean zerbait larria gertatu arte kasu handirik ez da egiten. Baina puntu beltz honetan gertaera larririk dagoeneko sorta bat egiteko adina suertatu dira eta ez dugu gehiago behar. Ez dut uste gure gizartean zubi lanak egiteaz isildu gabe hitz egiten den garai honetan, oinezkoentzat zubitxo bat egitea hainbeste kostatzen denik.

URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

Udaberria



Iritsi da azkenean batzuek hainbeste desiratutako udaberria. Hasiak dira kolore biziz jazen gure inguruetako zelaiak eta batzuk beren lorategia eta balkoiko loreontziak atontzeko lanean hasiak dira dagoeneko. Urtineara jendeak egiten dituen joan-etorrian erreparatu besterik ez dago. Lehenago edo beranduago leku guztietara heltzen den urtaroa da.

Japonen adibidez, gereziondoa tokiko landarea da, gehien irudikatzen duena, bertakoa eta aintzinatik kutunena izan dena. Gereziondoak lehenengo Okinawan loratzen dira eta hego-mendebaldetik ipar-ekialderako bidea jarraituz azkenik Hokkaidon loratzen amaitzen dute. Egun, japoniarrek gerezi arbolon loratzea udaberrian hanamiarekin ospatzen dute. Hanamia loreen edertasuna behatzeko jazoera sinplea da eta gereziondoak loretan ikusteko parkeetan eta lorategietan biltzen dira. Honek, naturak lor dezakeena mirestea eta ilusioa eta maitasuna berreskuratzen laguntzen die. Aurten tamalez Japonen ez dute denek hanamia ospatzeko aukerarik izango. Aukera dugunok gertaera hauetatik ikasi eta gure begiak eta bihotzak bizitzako koloreekin argiztatu beharko genituzke. Ondo izan.

SANTUENEA

JON ETXABE

Egin kasu semaforoari

Orduak igaroko nituzke Ingemarreko bidea gurutzatzen, Santu-Eneatik Usurbila eta alderantziz.

Seirehun bat metro besterik ez dira bide horrek hartzen dituenak, baina bertan ikus daitekeen aniztasuna, leku gutxitan dugu herrian: jende heldua paseatzen (batzuk zakur eta guzti), gurasoak euren haurraren kotxearekin, mendizaleak Andatzarako bidean (edo bueltan), jendea korrika trena galtzeko beldurrez, Ingemarreko langileen egoeraren eboluzioa (kanpin denda eta guzti daude jada)...

Edozein mementutan dago norbait bidea gurutzatzen: goizean, arratsaldean, nahiz parrandatik bueltan, haizea, euria nahiz eguzkia egonda ere.

Baina beti ikusten dudana zerbait badago: Santu-Eneako zubia gorrian pasatzen duen jendea. 3 semaforo (bata beti ñir-ñirka) besterik ez ditugu Usurbilen, errespeta ditzagun ba. Bizikletak, autoak, kamionetak, autobusak eta legea betearazten dutenak berak ere ikusi izan ditut semaforoa gorrian pasatzen. Gure hobebharrez daude jarrita, beraz ez ditzagun alde batera utzi.



AGINAGA

ANE MANZISIDOR

III. Mendi Lasterketa



Azken asteetan hor gabiltza Aginagako jai batzordekoak eta herriko beste zenbait laguntzaile mendi lasterketa-ko gauzak antolatzen. Aurtengoa, hirugarren edizioa izango da. Izan ere, urtetik urtera partaide kopurua gorantz doala kontuan hartuta ezin lasterketa hau antolatzea alde batera utzi. Edizio hau, apirilaren 3an ospatuko dugu 11:00etan eta iazko ibilbide bera izango du, 14 kilometro pasatxo izango dira lasterkariak egin beharko dituztenak. Esan bezala, dagoeneko antolaketetan gabiltza, aurrez lan handia egin behar baita honelako lasterketa bat borobila irten dadin. Egin beharreko lan asko aurrez egin beharrekoak dira, hau da, laguntzaileak aurkitu, herri-krossakoekin harremanetan jarri, ibilbidea nola dagoen ikusi eta egokitu, garbitu... Baina egunean bertan ere, jende askoren laguntza beharko da, esate baterako, bide gurutzetan egoteko, "abituallamentuak" prestatu eta bertan egoteko lasterkariak datozenerako... Hemendik, guztioi parte hartzeraz gonbidatzen zaituztet!!! Denon artean errazagoa izango baita lasterketa hau borobila ateratzea. Bestalde, izen ematea zabalik dago. Horretarako, www.herrikrossa.com webgunean duzue aukera. Aipatu behar, webgune bidez izena ematen duten



korrikalarien artean La Perla talasoterapian bi pertsonentzako hiru zirkuitu zozketatuko ditugula. Egunean bertan ere, izena emateko aukera izango duzue. Honez gain, parte hartzaile guztiei, herriko produktuez osatutako poltsa bana emango zaie opari, kamiseta batekin. Lasterketaren amaieran, hamaitzeko paregabea izango da. Besterik gabe, hemendik, guztioi lasterketa honetan parte hartzeraz gonbidatzen zaituztet, bakoitzak ahal duen moduan, korrika, lagunduz edo besterik gabe lasterkariak animatuz!!! Hau esanik, apirilaren 3an Aginagan ikusiko garelakoan... beste bat arte!!!

ATXEGALDE

M^A JESUS URBIETA

Garizuma



Aurten inoiz baino beranduago, sartu gara bete betean garizuman, hilaren 9an izan genuen hausterre eguna, eta urtero bezala, jendea bildu zen elizan, hautsa hartzera, ohiturari jarraituz. Egun hura igarota, orain Aste Santuari begira jarriak dauzkagu begiak.

Inauteriak ere aurretik izan ditugu eta ondo prestatzeko aukera izan dugu. Ikastolan lan asko egin zuten, eta pozik agertu ziren gaztetxoak. Zaletuak berriz herri giroan gozatu zuten, eguraldiak ondo lagunduta gainera. Izan ere, azken hilabeteetan eguraldi ezin hobea izan dugu eta neguari motzaldi handia eman diogu. Berogailuak pixka bat utzita eta gastu gutxiagorekin pasa dela diote auzotarrek.

Dagoeneko udaberriari sartu gara eta pozez hartu ohi da urte garai hau. Beraz aurrera egingo dugu. San Jose eguna ere aurten ez da izan jai eguna, hilaren 19a larunbatarekin etorri delako. Baina loreek ederki jazten dituzte, zenbait belardi. Gaia aldatuz, joan den igandean Zubietan festa bikaina antolatu zuten. Herritar eta auzotar ugari bildu zen bertan.

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Energia

Beroa sortu, argia egin eta mugimendua eragiteko materialak duen ahalmena da energia, hala erakutsi ziguten Fisikako klaseetan. Eta energia da igandean Zubietako plazan pilatu eta partekatutako genuena.



Flash moba ikasteko prozesuan, Zarauztik hasi, Usurbil eta Zubietan jarraitu eta Gipuzkoako eskualde eta herri askotan egindako entseguetan, energia in-crescendo joan da metatzen eta goia jo zuen igandean. Milesker prozesu hori guztia bizitzeko aukera eman diguzuenoi.

PNVk eta Odonek erraustegiaren lehen HARRIA jarri zuten eta Gipuzkoa Zero Zaborrek, berriz, HERRIA eta bihotzak jarri ditu dantzan, atez atekoa ezartzeko denbora-tartea eskatzeko.

Agintari horiei ipurtzuloa gori-gori jarri arteko beroa sortu genuen erreboten plazan, atez atekoaren emaitza ikusgarriak argiztatu genituen eta kolore guztietako gipuzkoarrak mugiarazteko energia pilatu genuen. Erraustegiaren kontrako borrokaren hurrengo geltokia hauteskundeak dira. Manu Chaok bere abestian zioen bezala, "Próxima estación, Esperanza".

Hiri hondakinen %88,60 bildu zen atez ate iaz Usurbilen, 3.510 tona guztira

Bi urteren buruan, %28tik %88rako jauzia eman du hiri hondakinen gaikako bilketak Usurbilen. Atez ateko bilketak eragin duigoera nabarmen horretan. Datuok aipatu sistemaren bigarren urtemuga bete berritan aurkeztu ditu Usurbilgo Udalak.


Gaikako bilketa 2008an, %28,43koa zen, 2009an %82,33koa eta iaz, %88,60raino igo zen Usurbilen. Datuok edukiontzien sistematik atez ateko bilketa egindako jauzia islatzen dute. Joan den martxoaren 18an aurkeztu zituen Usurbilgo Udalak, atez ateko bilketak bi urte bete berritan, egitasmoaren inguruan egin zuten balorazio teknikoaren baitan. Ingurumen eta nekazaritza alorretako udal teknikari Ibon Goikoetxeak bildutakoa pisutan azken hiru urteotan zenbatekoa izan den ere berri eman zuen: 2008an 3.766 tona gaika bildu ziren, 2009an 3.068 tona eta iaz, 3.510 tona.

IBON GOIKOETXEA

“Hiri hondakin guztiak atez ate biltzen ari gara Usurbilen”

Datuen inguruko argibideak

Azken hiru urteotan gaikako bilketa mailak izan duen gorakada nabarmena hondakinen kudeaketan izan den aldaketari lotua dago. 2008an edukiontzien sistema indarrean egotetik 2009ko martxoaren 16an atez ateko bilketa abiatzeagatik, etorri zen lehen gorakada ehuneko-



DAGOENeko LAU DIRA ATEZ ATE ARI DIREN HERRIAK.

tan. Lehen urtean ordea, hiri hondakinak etxebizitza eta komertzioetan biltzen ziren atez ate. Aipatu sisteman biltzera igaro ziren 2010ean, Urbil merkatal gunea eta udalerriko industria gunek. Azken lanketa hau garrantzitsutzat eta aitzindariatzat jo zuen Goikoetxeak, izan ere egun, “hiri hondakin guztiak atez ate biltzen ari gara Usurbilen”.

Bestalde, urteotan argitaratu diren bilketa datuen inguruan beste argibide bat ere eman nahi izan zuen udal teknikariak. San Marko Mankomunitateak emandako datuen inguruan zioenez, “hondakin zati batzuk falta dira”. Iazko gaikako bilketa %77,5ekoa dela dio San Markok. Baina Goikoetxearen esanetan, “Mankomunitateak ez du kontuan hartzen falta dena”. Esaterako, poligonoetan modu pribatuan kudeatzen diren hondakinak.

Tonen kopuruari dagokionez, hiru urteotan izan diren gorabeherak bizi dugun krisialdi ekonomikoarekin lotzen zuten Goikoetxeak. Modu horretan interpretatu behar da, duela bi urtetik hona bildutako tonatan hiri hondakin kopuruak jasan duen beherakada.

Larunbat honetan, mural pintaketa Dema plazan

MARTXOAK 26 LARUNBATA
10:00-12:00 “Aire garbiak bira nazan. Eman bostekoa eta eskuratu zure haize-errota” aldarrikatuko duten lau muralen pintaketa Dema plazan.

Bitartean, haize-errotak eta kamisetak salgai Dema plazan.

Ondoren, kalejira Atxegalderaino. Bertan, N-634 errepiderako sarbidean, Dema plazan margoturiko muralak errepide bazterrean dauden horman jarriko dira.

Antolatzailea: Usurbil Zero Zabor.

19:00 Bertso kantu-jira Mikel Laboa plazatik abiatuta. Bertsolariak: Maialen Lujanbio eta Sustrai Colina.

21:00 Afaria Agerialden. Prezioa: 25 euro. Txartelak Txiribogan, Bordatxon, Alamandegin. Txartela eskuratzeko azken eguna: martxoak 24.



Javier Orbegozo
·ITURGINTZA
·GASA ·BEROKUNTZA
659 602 789
Erreka-txiki 13, 3. esk USURBIL 943 37 29 37



izAgirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitate@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

ALIPROX
Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

Hotzikarak estreinako lana aurkeztuko du ostiralean Akerra Gaztetxean

Zerbait lortu nahi duenak aha-
legindu beharra duela diote.
Eta lortu dute David
Illarramendik, Mikel Olasagastik,
Antton Aranburuk eta Beñat Arteagak
osatzen duten taldeak. Azken urteotan
buruturiko lanketaren ostean,
Hotzikarak estreinako diskoa prest du.
Bederatzi abesti berri, aurkezpen
moduan, ostiral gau honetan Akerra
Gaztetxean entzun ahal izango direnak.

NOAUA! Disko aurkezpena ostiral
honetan izanik, lan berria eskuragarri
izango da?

Mikel Olasagasti. Hilaren 25erako,
ostirala, Akerra Gaztetxean.
Hamaiketan hasiko da kontzertua.

David Illarramendi. Asfixia eta Ai ene
berbena taldearekin joko dugu.

N. Erosteke aukera izango da?

M. O. Akerran bertan eta gero taber-
netan. Usurbilen, Irratin, Karobin...
Eta inguruko herrietako taberna eta gaz-
tetxeetan. Gure aldetik egindako bana-
keta izango da.

LEHEN INPRESIOAK

“CD-a martxan jarri,
eta jarraian bukaeraraino
entzun dutela esan digute”

D. I. Lana eskuratu nahi duen herri-
tarrak bestela, guri eskatu besterik ez du.

**N. Auto ekoizpenaren bidetik jo
duzue. Nolako izan da esperientzia?**

D. I. Sutegin grabatu genuen, Joseba
Agirresaroberekin. Lehenbizi batera
grabatu genuen, gero baxua, eta gero
gitarra eta ahotsa. Lan horiek egin oste-
an, estudiora eraman genuen nahaskete-
tarako.

N. Emaitzarekin gustura zaudete?

M. O. Sosa gutxi gastatuta, emaitza
oso ona da.

N. Bederatzi abesti sortu dituzue?

M. O. Hasiera batean pare bat gen-



IRRATIN ETA KAROBIN EROSI DAITEKE HOTZIKARAREN DISKOA.

tuen myspace.com web gunean jarrita,
indartsuak. Gero beste ildo bateko
hiruzpalau abesti ditugu. Letra aldetik
guri zeresana sortzen diguten gaiak dira.
Anbiguotasun bat eman nahi izan
diegu, ez dira hain letra deskribatzaile-
ak, norberari zeresana eta zer pentsatua
emateko modukoak baizik. Hardcore
trash metal estilokoak dira.

**N. Zuen gertukoek abestiak entzute-
ko aukera izango zuten jada. Zer diote?**

M. O. Gutxi batzuk dira diskoa dute-
nak, entzuten ari direnak. CD-a mar-
txan jarri, eta bukaeraraino entzun dute-
la esan digute. Ez direla aspertu, eta hori
seinale ona da.

**N. Lan berriak bideoklipa ere badu.
Diskoko abesti nagusiarena?**

D. I. Beste egitura bateko abestia sar-
tzen genuen lehen aldia zen. Horregatik,
kanta honek markatu egin zigun eta
bideoklipa egin da. Peru Galbete ardu-
ratu da grabazioaz.

M. O. Oso ondo atera da. Denbora
oso gutxian grabatu da. Baliabide asko
ditu Peruk. Merezki zuen kanta horri
bideoklipa ateratzea, abesti ederra baita.
Bideoklipa prest izatean myspace.com
orrialdean jarriko dugu.

**N. Lan berria aurkezteak beste eran-
tzukizun bat eskatzen dizue taldeari,**

urduritasun gehiago?

M. O. Ez, landua baitugu.
Urduritasuna bazen sorreran. Jendearen
aldetik ikusi genuen erantzuna bazela
eta orain lasaiago gaude. Oso gustura,
ilusioarekin eta ia ostiraleko show-a
prestatzen dugun.

**D. I. Eta gainera Akerran, etxean
gaude.**

“Gazteei aukera emanez gero...”

**NOAUA! Gaztetxera joateko asmo-
tan direnek, zer topatuko dute?**

M. O. Egurra, eta giro ilun batean
sartzeko aukera ezin hobea.

**N. Mendeku Itxua, Desegin,
Odolaren Mintzoa, zuek... Herriko
musika taldeen berpiztea gertatzen ari
dela esango zenukete?**

M. O. Argi dagoena da, gazteei auke-
ra emanez gero, hasieran probatzen has-
ten zarela, gero denbora aurrera joanda,
ikasten zoaz. Azkenean, talde bakoitzak
diskoa du. Halako gauzak ateratzen
dira.

**D. I. Asko ikasten da besteei ikusita
ere. Aukera emanez gero, zerbait sortu-
ko da.**

Martxoak 25 ostirala

23:00etan, Akerra gaztetxean.

www.facebook.com/hotzikara

www.myspace.com/hotzikaraurbil

Dantzak, jai-giroak eta aldarrikapenak bat egin zuten Zubietako flash mob grabazioan

Bi mila dantzari biltzea. Hori izan zen duela hilabete batzuk ezarri zuten erronka. Baina Gipuzkoa Zero Zabor taldekoen aurreikuspen baikorrenak gainditu egin ziren pasa den igandean Zubietan. Gipuzkoako herri askotatik hurbildu ziren “Hartu nahi dut arnas” kantuarekin batera dantza egitera eta festa, bistan denez, luzaroan gogoratzeko modukoa izan zen.

Flash mob delako dantzaren grabazioa baino lehen, Ainhoa Arrozpide Gipuzkoa Zero Zabor elkarteko bozeramalea pozarren zegoen. Uste baino jende gehiago bildu baitzen Zubietan eta, azken orduan, dantza egiteko toki berriak egokitu behar izan zituztela adierazi zuen hedabideen aurrean egindako agerraldian: “baina ez dira festa batera etorri, aldarrikapen bat egitera baizik. Errauste-plantaren proiektuaren aurrean, moratoria bat eskatzera. Gipuzkoa osorako zero zabor programa martxan jar dadin”, adierazi zuen Ainhoa Arrozpidek.

Harri baten aurrean, herri bat

Instituzioekin gogor azaldu zen Ainhoa Arrozpide: “harri bat jarri dutela zabaldu da komunikabideetan (aurreko astean, instituzioek Zubietan egindako ekitaldiaren harira), baina guk esan nahi dugu



DANTZARIZ BETE ZEN ERREBOTE PLAZA.

hemen herri bat dagoela, Gipuzkoako gehiengo soziala dagoela ordezkatuta hemen”, azaldu zuen Zubietan.

GIPUZKOA ZERO ZABOR

“Ez dugu nahi gipuzkoar guztion osasuna, ingurumena eta ekonomia kaltetu nahi”

“Eta herritarrek eskatzen digutena zera da: hiri hondakin guztien kudeaketan aldaketa bat. Ez dugu gure osasuna eta gure ingurumena kaltetuko duen errauste-

planta toxikorik nahi eta horren aurrean Usurbil, Oiartzun, Hernanin... martxan dauden gaikako bilketa eredu horiek Gipuzkoa osoan jar daitezela martxan”.

Eskaera batekin amaitu zuen bere agerraldia Gipuzkoa Zero Zabor elkarteko bozeramaleak: “Markel Olano eta kudeaketa horretan parte hartzen ari diren guztiei herriari entzuteko eta alda ditzatela hartutako erabaki horiek. Eta zero zabor programak kudeatzeko bitartekoak jar ditzatela. Herritarrak prest gaude gure aldetik zerbait egiteko. Ez dugu nahi gipuzkoar guztion osasuna, ingurumena eta ekonomia kaltetu nahi”.

“Alternatiba egon badago”

Dantzarien artean ziren Mikel Izagirre Urnietako alkatea edota Xabier Mikel Errekondo Usurbilgo alkatea. Hedabideen aurrean egindako adierazpenetan, instituzioek itsututa jarraitzen dutela adierazi zuen Xabier Mikel Errekondok: “lehen harria jarri badute, itsututa jarraitzen dute politikariek. Gipuzkoa aurrera eta antzekoak erabiltzen dituzte, baina herritarrengatik oso urrun daude”.

“Harri horren aurrean, herri bat dago. Ardurak hartu nahi dituen herri bat. Gainera, eredu oso berritzaileen bidez.

Kasu hau da adibidea. Ikusi zer nolakoa antolatu den flash mob honekin”, adierazi zuen Xabier Mikel Errekondok, Zubietan egindako prentsaurrekoan.

21 urteko morrontza

Eskaera bat ere egin zuen. Alternatibak sustatzeko denbora, moratoria alegia. “Gipuzkoar guztioi 21 urterako morrontzara bideratu nahi gaituzte. Osasuna, ingurumena, ekonomia eta politika mailako morrontza horren aurrean, moratoria eskatzen ari gara. Arduraz jokatzeko eskatu nahi diegu politikariei. Teknologia berriena erabili



PILAZDEK GIROTU ZUTEN FLASH MOB GRABAZIO AURREKO DENBORA-TARTEA.


arren, ikusi dugu azken asteotan zer gertatu den mundu mailan. Eta hemen puntako teknologia herritarra bera da”.

Larunbat honetan, bertso-kantu-jira-afaria

Bi urte bete ditu atez ateko bilketak. Urteurren hau dela eta, ekitaldi sorta antolatu da asteotarako. Tartean, martxoaren 26rako, hilabeteko azken larunbateko ohiko kantu-jira saioa ordezkatuko duen bertso kantu jira eta afaria.

Oraingoan, euskal abestiak eta bertsoak tartekatuko dira. Larunbatean, 19:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuko da Botapunttuba Bertso Eskola, Usurbil Zero Zabor eta Kantu Taldeak antolatu eta Udalak lagundutako ekimena. Kalejiran ibiliko dira Kaxkoan barrena, kantuan Susi Elozegi gidari lanetan dutela, baina baita bertsoan ere. Maialen Lujanbio eta Sustrai Colina gonbidatu dituzte aipatu hitzordura. Kalejira gainera, trikitalari eta panderojoleek girotuko dute.

Kantu Taldetik, kantu liburuxka eramateaz ez ahazteko oharra helarazi nahi dute.



MAIALEN LUJANBIO ETA SUSTRAI COLINA KOPLATAN ARITUKO DIRA MARTXOAREN 26KO BERTSO-KANTU-JIRAN.

Afarirako txartelak salgai

Kalejirarekin batera, afaria antolatu dute Agerialden, gaueko 21:00etatik aurrera. Antolakuntzatik berri eman dutenez, honako menua dastatu ahal izango da: arrai pastela, ahate gibel

musa, baratxuri otarrain eta gula arrautza nahasia, sorbetea, behi masail, isatsa eta sagarra hostorean, gazta tarta, kafea eta ondorengoak.

Txartelak 25 eurotan salgai, Txiribogan, Bordatxon eta Alamandegin.

Eta igandean, truke azoka Txokoalden

Iazko edizioarekin alderatuta, Objektuekin batera, oraingoan nor bere gaitasunak trukatzeko aukera izango du Truke Azokan. Antolakuntzatik gogorarazten dutenez, “denok dugu zerbait eskaintzeko, eta denok dugu zerbaiten beharra”. Bi lagunen arteko tratua ez du prezio ekonomikorik izango, gaitasun trukea baino ez da izango, norbait laguntzea norberak laguntza jasotzeko.

Diru mugimendurik ez da izango igandeko ekimenean, lekua izango dute ordea herritarrek eta euren arteko tratuzuzenak.

Azoka, jai-giroan

Goizeko hamarretatik aurrera Txokoaldeko Erroizpe elkarte aurreko plazan, trukeko postuak jarri ahal izango dira. Hainbat bilguneetako ordezkariek ere euren postuak jarriko dituzte, aurreko edizioan bezala. Trikitalariak girotuko dute goiza, eta eguerdi parte, bazkari parte hartzaile batek.

Datu gehiago: trukemerkatua@gmail.com



EURIA EGINGO BALU, TRUKE AZOKA AGINAGAKO FRONTOIAN EGINGO LITZATEKE.

Informazio eta trukeko postuak

Martxoko azken igandea egun parte hartzailea izatea nahi dute antolatzaileek. Ospakizunak izan dezakeen harrera, bertaratuko direnen esku geratuko da: “Tokia eta eguna jartzea da gure helburua. Hortik aurrera herritarrek dira protagonistak”.

Truke Egunarekin batera, Trukalariak

taldetik aurreratutuz, badute bes-telako proiekturik esku artean.

Denda librea

Trukatzeo aukera urtean bi hitzordutara mugatu beharrean, eguneroko aukeran bilakatzeko lanketan dihardute, “denda libreak” egitasmoaren bidez.

Odolaren Mintzoa Viana Rock Lehiaketako finalera ailegatu da

Nafarroako Viana udalerrian bigarren ez ospatzen ari den Viana Rock Gazteak Txapelketako finalerako sailkatu da Odolaren Mintzoa talde usurbildarra. Musika talde guztiak eta euren lana ezagutzera ematea da txapelketaren helburua.

14-22 urte arteko kideez osaturik egon eta diskoetxeekin kontraturik ez duten musika taldeek parte har dezakete bertan. Finala apirilaren 15ean ospatuko da. Egun horretan kontzertua eskainiko dute Luken Arkarazok (ahotsa eta gitarra), Joanes Txuekak (baxua), Beñat Txuekak (gitarra) eta Jokin Irastorzak (bateria).



FINALA APIRILAREN 15EAN
JOKATUKO DA (ARGAZKIA: GABRIELE).

Talde irabazleak, sari gisa Viana Rock 2011 jaialdian talde gonbidatu gisa parte hartzeko aukera izango du.

Mendeku Itxua

Arabatakadan arituko da

Unibertsitate euskaldun eta herritar baten alde Arabatakada jaialdia antolatu dute Gasteizko Mendizabalan apirilaren 1ean. Egun osoko festa antolatu dute eta arratsaldeko 17:00etatik aurrera kontzertuak. Berri Txarrak, Zea Mays, Esne Beltza, Governors, Tximeleta eta Maketa Lehiaketako irabazleek joko dute. Eta haiekin, Mendeku Itxua Usurbilgo taldeak. Sarrerak salgai daude jada. Informazio gehiago: arabatakada.org

Bi aste barru, Zumaian

Ostiral honetan, Donibane Lohitzunen arituko dira; apirilaren 8an Leioako gaztetxean eta apirilaren 9an Zumaiaiko gaztetxean joko dute.

Interneten ere aurkituko gaituzu NOAUA! Usurbildarren zerbitzura

<http://twitter.com/noaua>
<http://www.facebook.com/noaua>
<http://www.youtube.com/noauotb>
<http://www.noaua.com>

“Nire ubideak”, Sutegin aurkituko duzuen erakusketa

Aiakoa da baina Aginagan bizi da. Pintura ikasten ari direnek badakite nor den Jasone Irigoien. Pintura eskolak ematen dituelako “Aginagako eta Usurbilgo jubilatuen etxean eta baita Zarautzen ere, Artezaleak-en”. Egun hauetan, *Nire ubideak* izeneko erakusketarekin aurkituko duzue Sutegin. Aurreko astean zabaldu zuen eta asteburu honetan izango dugu bere ilustrazioetaz zein bere margoetaz gozatzeko aukera berri bat.

Gustura ari da heziketa munduan. Adin ezberdineko ikasleak ditu, baina bera ere ikasle sentitzen da. Izan ere, “eskolak ematen ere asko ikasten da” adierazi digu.

Jasone Irigoienek Arte Ederrak ikasi zituen Leioan. Gerora, “Debako arte eskolan, harria eta egurra lantzen aritu nintzen. Baina denetarik egiten dut, argazkia, ilustrazioa, eskultura, margoa...”.

JASONE IRIGOIEN

Ametsen mundu onirikotik abiatzen da: “Emozioen kanalizatorako balio du sortze-lanak”

Bolada batean, eskultura oinarritu zuen bere sorkuntza lana. Kaxianoren omenez Lizartzan jarrita dagoen eskultura, Jasonek berak egin zuen. Lehiaketa bidez hautatu zuten bere proposamena. Eta Bizkaiko Arboledan ere, Trapagaranen hain zuzen, bada bere arte-lan bat ere.

Helburua, “libre sentitzea”

Baina ez du eskulturara mugatu nahi. Argazkian gustura ibiltzen da, baita koadroak margotzen zein haur literaturan ilustrazioak egiten. “Libre sentitzea da nire helburua”, aitortu digu.

Haur eta gazte literaturan, ilustrazio asko egin ohi da. Iaz, esate baterako, Antton Irustaren *Lamia eta Basajaun* liburuaren ilustrazioa egin zuen.



JASONE IRIGOIEN, ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOAN EGINDAKO ARGAZKIAN.

“Hurrei bideratutako guztia asko gustatzen zait” azaldu digu Jasone Irigoienek.

Surrealismotik abstrakziora

Sutegin ilustrazio horietako batzuk ipini ditu eta baita hainbat margolan ere: “azken hilabeteotan egindako lanak dira. Ez nuen duela 5 urte egindako lanik ekarri nahi”. Koadro bakarra da aspaldikoa, gainontzeak egin berriak. *Nire ubideak* izenburupean Sutegin bildu dituenak.

Erakusketaren helburu nagusia, bere lanaren berri ematea da. “Lehenengo sortzailearentzat balio behar du. Baina ez du zentzurik etxean gordeta edukitzeak. Gizarteratzerako helburu bat ere bada, nire ikusteko modua konpartitzea gogo”. Bere lan egiteko moduak jende-ari zer sortarazten dion, hori argitzeko jakin mina ere badu Aginagan bizi den margolari honek.

